
FORU DEKRETUA

Diputatu Nagusiaren Saila
Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzua
Esp. zk.: 49/2018

Onespena ematea Diputatu Nagusiaren Sailak baliabide ekonomiko gutxiko pentsiodunen energia gastuak finantzatzeko lehia askeko araubidean emango dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileei eta deialdiaren oinarriei

Pobrezia energetikoa da etxe baten oinarritzko energia premiak asetzeko zailtasuna izatea, eta horrek eragina dauka etxe horretan bizi diren pertsonen ongizatean, hala nola konfort termikorik eza, bestelako ondasun eta zerbitzuetarako erabilgarri duten errenta murriztea, bizigarritasun baldintza txarrak izatea, ordaindu ezinean geratzeko arriskua izatea eta loturak galtzea.

Pobrezia energetikoaren barruan askotariko gastuak sartzen dira, besteak beste klimatizazioak, argizatzeak, sukaldeak eta etxeko ur beroaren kontsumoak eragindakoak, eta fenomeno hori pobrezia edo gizarte bazterketaren zentzurik zabalenetik kanpo geratzen da, hain zuzen ere etxe jakin batzuetan pobrezia energetikoa izan dezaketelako gizartean baztertuta geratzeko arriskuan egon gabe edo diru faltan egon gabe. Nolanahi ere, gizartean baztertuta izatera iristeko lehen urratsa izan daiteke.

Hortaz, zaugarritasun energetikoaren kontzeptuak nabarmendu egiten du orain arte behar bezala hausnartu ez diren gai batzuen garrantzia, hala nola osaera sozio-demografiko desberdineko familien energia beharrak, edo 'energia bektore' jakin batzuk ezin eskuratzea (argindarra edo gas naturala, esate baterako), bai eta aldaketen premia ere gizarte ongizateko politketan, energiaren prezioak ezartzeko politketan edo etxebizitzaren sektorean eraginkortasun energetikoa sustatzeko politketan.

Hori dela medio, eta Arabako Foru Aldundiaren 2018ko aurrekontuetan ezarritakoari jarraikiz, Diputatu Nagusiaren Sailean 02 25 "Energia-pobretasunaren aurkako borroka" izeneko aurrekontu lerroa jaso da. Lerro horretan 75.000 euroko zenbatekoa dago, oraindik ere gauzatzeke dagoena.

Halaber, sail honek interesa du baliabide ekonomiko gutxiko pentsiodunen energia gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia egin dadin; gauzak horrela, aurrekontu lerro hori gauzatzea proposatzen da, bai eta, hortaz, oinarri arautzaileak eta deialdi honen oinarriak onestea ere.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onestea Diputatu Nagusiaren Sailak baliabide ekonomiko gutxiko pentsiodunen energia gastuak finantzatzeko lehia askeko araubidean emango dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak, zeinak foru dekretu honen I. eranskin gisa jaso baitira.



Bigarrena. - Onestea deialdiaren oinarriak, zeinak foru dekretu honen II. eranskin gisa jaso baitira.

Hirugarrena. - Onestea foru dekretu honen III. eranskinean jasotako eskaera orria.

Laugarrena. - Foru dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2018ko indarreko aurrekontu antolaketako 02.25 lerroaren kontura ordainduko dira, eta zenbatekoa 75.000 euro izango da.

Bosgarrena.- Ebazpen honek administrazio bideari amaiera ematen dio, eta beronen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke ebazpena eman duen organoaren aurrean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, ezarritakoaren arabera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan jakinarazpena egin ondoko bi hilabeteko epean, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Seigarrena. - Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Ramiro González Vicente
Diputatu nagusia
Diputado General

Nekane Zeberio Ganzarain
Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria
Directora del Gabinete del Diputado General



I. ERANSKINA. OINARRI ARAU OROKORRAK, DIPUTATU NAGUSIAREN SAILAK BALIABIDE EKONOMIKO GUTXIKO PENTSIODUNEN ENERGIA GASTUAK FINANTZATZEKO LEHIA ASKEKO ARAUBIDEAN DIRULAGUNTZAK EMATEKO

1. artikulua.- Xedea eta aplikazio eremua

Dekretu honetan ezartzen dira oinarri arau orokorrak, baliabide ekonomiko gutxiko pentsiodunen energia gastuak finantzatzeko Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Sailak lehia askeko araubidean emango dituen dirulaguntzetarako. Dirulaguntzak argindar, gas edo bestelako erregaien hornidurak direla eta hirugarren artikuluan zehaztutako onuradunek dituzten gastuetarako emango dira.

Deialdiak hauek jasoko ditu:

- a.** Zein aurrekontu kredituren kontura emango den dirulaguntza eta kreditu erabilgarrien barruan deitutako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa.
- b.** Dirulaguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua.
- c.** Dirulaguntzak lehia askeko araubidean emango direlako adierazpena.
- d.** Dirulaguntza eskatzeko betekizunak, eta horiek egiaztatze modua.
- e.** Prozedura izapidetzeko eta ebazpena emateko eskumena zein organok duten adieraztea.
- f.** Eskaerak aurkezteko epea.
- g.** Ebazteko eta jakinarazteko epea.
- h.** Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioa.
- i.** Hala dagokionean, eskaerak birmoldatzeko posibilitatea, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 27. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.
- j.** Ebazpenak administrazio bideari amaiera ematen dion ala ez adieraztea.
- k.** Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 41. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

2. artikulua.- Printzipio orokorrak

Ematen diren dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

- Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzeko.
- Efizientzia, Diputatu Nagusiaren Sailaren baliabideak esleitzeko eta erabiltzeko orduan.

3. artikulua. - Onuradunen betekizun orokorrak

Eskaera datan betekizun hauek betetzen dituzten pertsona fisikoek eska dezakete dirulaguntza:

- 1.- Diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzea pentsio osagarri gisa.
- 2.- Eskaeraren datan Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritan (Gasteiz salbu) eta Trebiñuko Konderriari dagozkionetan errolatuta izatea, bost urtez azken hamar urteetan, eta gutxienez behin era



jarraituan eta eskaera egin aurre-aurrean. **3.-** Argindar, gas edo bestelako erregaien fakturak ordaintzea, zuzenean edo zeharka (jabekideen erkidegoa, errentatzailea eta abar).

4.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku egoeretako batean ez egotea.

Betekizunak betetzen diren egiaztatzeko, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak, diru sarrerak bermatzeko errentarenak, 5. artikuluan zehaztutako bizikidetzaren unitatearen kontzeptua hartuko da aintzat.

4. artikulua.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

1.- Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira deialdian ezarritako epean argindar, gas edo bestelako erregaien kontsumoak eragindakoak, bai eta berogailuari dagozkion jabekideen erkidegoaren gastuak ere.

2.- Gastu hauek inola ere ezingo dira diruz lagundu:

a) Bankuko kontuen interes zordunak.

b) Interesak, errekarquak eta administrazio eta zigor zehapenak.

c) Prozedura judizialtako gastuak.

Zergak dirulaguntza jaso dezaketen gastuak dira onuradunak egitez ordaintzen baditu.

Ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

5. artikulua. Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, guztira eta banaka

1.- Deialdiak finkatuko du dirulaguntzetarako zenbat diru dagoen, gehienez, bai eta zer aurrekontu partidari egotziko zaizkion ere.

2.- Guztirako dirutik eskatzaile bakoitzari eman dakioken dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak (hala badagokio, beste administrazio publiko batzuen edo entitate publiko edo pribatuen bestelako laguntzekin edo sarrerekin batera) ezin izango du gehiegizko finantzaketa sortu laguntza deialdi honen xede den energia gastuan.

6. artikulua.- Eskaerak aurkeztea eta horretarako epea

1.- Eskaerak, deialdiaren eranskin gisa argitaratutako ereduari lotuak, Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean aurkeztu ahal izango dira (Probintzia plaza 5, Gasteiz), bai eta Foru Aldundiaren beste erregistroetan eta itundutako udalen erregistro orokorretan ere; hori ez da oztopo izango urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan ezartzen duena aplikatzeko. Eskaerei deialdian eskatutako agiriak erantsiko zaizkie.

2.- Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztutakoa izango da, eta ezingo da izan hamabost egun baino gutxiagokoa, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurkeztutako eskaerak adierazitako baldintzak betetzen ez badituzte, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie akatsak zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko; hala egin ezean, eskaera artxibatu eta



interesdunak egindako eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

3.- Dirulaguntza eskaerak aurkezteak berekin dakar formalki eta berariaz onartzea oinarri hauetan eta kasuan kasuko oinarri espezifikoean ezarritakoa.

7. artikulua.- Deialdia ebaztea

1.- Prozedura izapidetzeko organo eskumenduna izango da Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Sailean dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoa.

Diputatu Nagusiaren Sailak datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztutako agiriei buruz; horiek urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako epean ez bidaltzeak eskaera artxibatzea ekar lezake.

Organo izapidetzaileak, espedientea ikusita, ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoitua.

Entzunaldiaren izapidea egin beharrik ez da izango, baldin eta interesdunek aurkeztutako egitateak eta alegazioak baino ez badira agertzen prozeduran eta horiek baino ez badira kontuan hartzen; horrela gertatuz gero, egindako ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

3.- Organo eskudunak, organo izapidetzaileak proposatuta, dagokion ebazpena emango du, ALHAOn argitaratutako deialdian adierazten den gehieneko epearen barruan. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek uler dezakete eskaera ezetsi egin dela.

4.- Dirulaguntzak emateko ebazpenean, dirulaguntza zer eskatzaileri eman zaien jasotzeaz gain, berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

5.- Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, aurkeztu beharreko agiriak, diruz lagun daitekeen aurrekontua eta zer baldintzatan ematen den.

6.- Dirulaguntza eman edo ukatu zaien jakinaraziko zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako moduetakoren batean.

7.- Ebazpenak administrazio bidea agortzen du; beraz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegietan, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik aurrera, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, ezarritakoaren arabera.

Era berean, nahi izanez gero, ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpen egunetik aurrera, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritakoarekin.

8. artikulua.- Justifikazioa

1.- Dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsonen deialdiaren oinarrietan ezarritako agiriak aurkeztu behar dira dituzte.

2.- Deialdi bakoitzaren oinarrietan horrela ezarrita baldin badago, aurkeztutako jatorrizko frogagiriak zigilu batez markatuko dira; zigiluan agertuko da zein dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu diren eta frogagiriaren zenbatekoa osorik edo zati bat egotzen zaion dirulaguntzari. Azken kasu horretan, gainera,



dirulaguntzak eragindako zenbateko zehatza adierazi beharko da.

9. artikulua.- Dirulaguntza ordaintzea

1.- Deialdi bakoitzean ordaintzeko modua zehaztuko da eta ordainketa aurreratuak egiteko aukera jaso ahal izango da.

2.- Ezingo da ordainketa egin, harik eta pertsona onuradunak Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean izan arte.

10. artikulua.- Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna

Deialdi honetan onar daiteke beste administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste diru laguntza batzuk jasotzea, betiere haien kopurua ez bada, bakarka nahiz beste diru laguntza batzuekin batera, diruz laguntzen den gastua baino handiagoa.

11. artikulua.- Dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako batean edozein aldaketa gertatuz gero eta, betiere, beste entitate publiko edo pribatu batetik helburu bererako laguntza edo dirulaguntzaren bat jasoz gero, erabaki ahal izango da dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea eta hura itzultzeko espedientea irekitzea.

12. artikulua.- Dirulaguntza itzultzea

Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira honako hauetan ezarritako kasuetan: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, Arautegia.

Onetsitako dirulaguntzaren kontura jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, bere II. tituluko I. kapituluaren aurreikusten duenarekin bat etorritik egingo da.

13. artikulua.- Egiaztapena

Diputatu Nagusiaren Sailak egoki jotzen dituen ebazpenak emango ditu deialdiak aurrera eramateko, eta behar diren ekintzak baliatu ahal izango ditu onuradunei datuak eskatzeko, aurkezten dituzten datuak egiaztatzeko eta oinarri hauetan ezarritakoa bete dela bermatzeko. Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute diruz lagundutako gastuekin zerikusia duten eta haiei eskatzen zaizkien behar adina datu eta agiri aurkezteko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakunde batzuek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

14. artikulua.- Interpretazioa

Diputatu Nagusiaren Sailak ebatziko ditu oinarri hauek interpretatzean sor daitezkeen zalantzak.



15. artikulua.– Aplikatzekoa den araudia

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztian, xedapen hauei jarraituko zaie: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, Arautegia; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren ekonomia eta aurrekontu araubidearena; aurrekontu antolamenduari buruzko indarreko foru araua; eta urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena.



II. ERANSKINA. DEIALDIAREN OINARRIAK, DIPUTATU NAGUSIAREN SAILAK BALIABIDE EKONOMIKO GUTXIKO PENTSIODUNEN ENERGIA GASTUAK FINANTZATZEKO LEHIA ASKEKO ARAUBIDEAN EMANGO DITUEN DIRULAGUNTZENAK

1. artikulua.- Xedea eta helburua

Deialdi hau energia gastuaren arloko oinarri orokorrek xedatuko dute, eta xede du lehia askeko araubidean dirulaguntzak ematea, baliabide ekonomiko gutxiko pentsiodunen energia gastuak finantzatzeko, hain zuzen argindar, gas edo bestelako erregaien hornidurari dagozkionak, 2018an, Arabako Lurralde Historikoan (Gasteiz salbu) eta Trebiñuko Konderrian.

2. artikulua.- Denbora eremua

Dirulaguntza eskaera eragin duten gastuak 2017ko azaroaren 1etik 2018ko urriaren 31ra bitartean eginak izan beharko dira.

3. artikulua.- Aurrekontu egozpena

Foru dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2018ko indarreko aurrekontu antolaketako 02.25 lerroaren kontura ordainduko dira, eta zenbatekoa 75.000 euro izango da.

4. artikulua.- Onuradunak eta kanpo utzitakoak

Eskaera datan betekizun hauek betetzen dituzten pertsona fisikoek eska dezakete dirulaguntza:

- 1.- Diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzea pentsio osagarri gisa.
- 2.- Eskaeraren datan Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritan (Gasteiz salbu) eta Trebiñuko Konderriari dagozkionetan erroldatuta izatea, bost urtez azken hamar urteetan, eta gutxienez behin era jarraituan eta eskaera egin aurre-aurrean.
- 3.- Argindar, gas edo bestelako erregaien fakturak ordaintzea, zuzenean edo zeharka (jabekideen erkidegoa, errentatzailea eta abar). Betekizun hori 9. artikuluan aurreikusitako eran egiaztatuko da.
- 4.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku egoeretako batean ez egotea.

Betekizunak betetzen diren egiaztatzeko, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak, diru sarrerak bermatzeko errentarenak, 5. artikuluan zehaztutako bizikidetza unitatearen kontzeptua hartuko da aintzat.

Emandako dirulaguntza osorik edo haren zati bat justifikatzen ez duten eskatzaileei, arrazoi hori dela eta, dirulaguntza ukatuko zaie hurrengo ekitaldietan eskatzen badute.

5. artikulua.- Onuradunen betebeharrak

Hona hemen laguntzen onuradunen betebeharrak:

- a.- Egiaztatzea betekizunak eta baldintzak betetzen dituela, eta dirulaguntza emateko edo gozatzeko



oinarri izan den helburua bete duela.

b.- Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen egiaztatze jardunak onartzea, baita kontrol organo eskudunek egin ditzaketen finantza kontrolak ere, aurreko zeregin horietan eskatuko zaien informazio oro emanez.

c.- Jasotako dirulaguntzen erabilerari buruzko egiaztagiria gordetzea, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan daitezkeen heinean.

d.- Aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko obligazioak betetzea, 9. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

e.- Aplikatu beharreko araudian ezarritako kasuetan, jasotako dirua itzultzea.

f.- Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea dirulaguntza ematean kontuan hartutako egoeren aldaketa oro.

6. artikulua.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

1.- Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira 2017ko azaroaren 1etik 2018ko urriaren 31ra bitartean argindar, gas edo bestelako erregaien kontsumoak eragindakoa, bai eta berogailuari dagozkion jabekideen erkidegoaren gastuak ere. **2.-** Gastu hauek inola ere ezingo dira diruz lagundu:

a) Bankuko kontuen interes zordunak.

b) Interesak, errekareruak eta administrazio eta zigor zehapenak.

c) Prozedura judizialakoko gastuak.

d) Zeharkako zergak berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez dira joko dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

7. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa eta muga

Pertsona bakoitzari emandako dirulaguntzak ezin izango du inola ere 600,00 euroko kopurua gainditu. Elkarbizitza-unitate bakoitzari dirulaguntza bat baino gehiago ez zaio emango.

Deialdiak onartu ahal izango du Arabako Foru Aldundiak edo beste administrazio batzuek edo erakunde publiko nahiz pribatuek emandako beste dirulaguntza edo sarrera batzuk jasotzea, baldin eta horien zenbatekoak, bakarka edo beste dirulaguntza batzuekin bat eginda, 8. artikuluan ezarritako gastu diruz lagungarria gainditzen ez badu. Ondorio horietarako, onuradunek Diputatu Nagusiaren Sailari jakinarazi beharko diote zer-nolako dirulaguntzak eskatu dituzten eta zer ebatzi den eskaera horien gainean.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko modua eta epea

Eskaerak eta deialdi honen 9. artikulua aipatzen dituen agiriak aurkezteko epea hogeita egun naturalekoa izango da ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Eskaerak deialdi honen III. eranskin gisa jasotako eskaera ereduari lotuko zaizkio.

Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean aurkeztu ahal izango dira (Probintzia plaza 5, Gasteiz), bai eta Foru Aldundiaren bestelako erregistroetan eta itunpeko udalen erregistro orokorretan ere. Hori ez da oztopo izango urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko.



Aurkeztutako eskaerek adierazitako baldintzak betetzen ez badituzte, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie akatsak zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko; hala egin ezean, eskaera artxibatu eta interesdunak egindako eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

9. artikulua.- Agiriak

Interesdunen eskaera sinatuarekin batera (III. eranskin gisa atxikitako inprimakian), edo ordezkaritza behar bezala egiaztatuta, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

- a. Eskatzailearen NANA.
- b. Argindar, gas edo bestelako erregai gastuen fakturak, eta dagozkien ordainagiriak, diruz lagundutako gastua egin dela adierazten dutenak.
- c. Komunitatearen ordainketaren agiria berokuntzaren gastua justifikatzeko. Hori justifikatu beharko da transferentziaren banku-agiriaren bidez edota jabeen elkarteak emandako ziurtagiriaren edo ordainagiriaren bitartez. Bi kasuetan, agiriaren titularra agertu beharko da, baita helbidea, data eta ordaindutako zenbatekoa ere.
- d. 4.2 artikuluan ezarritako erroldaren epea egiaztatzeko errolda-txartela.
- e. Kontributiboa edo ez-kontributiboa den pentsioa jasotzen den agiria, erretiro, ezintasun edo alarguntzarena.
- f. Pentsio osagarri gisa diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzearen agiria.
- g. Laguntza deialdiari dagokion ekitaldian energia gastuak ordaintzeko gizarte larrialdietarako laguntzak jaso dituzten eskatzaileek horri buruzko agiriak aurkeztu beharko dituzte.
- h. Baldin laguntzaren eskatzailea eta bankuko ordainagiri edo egiaztagirien titularra ez badira pertsona bera, agiri bidez frogatu beharko da bien arteko harremana, bai eta ordainagiriak ordaindu direla ere, titularrari egindako banku transferentziaren egiaztagirien bidez edo titularrak ordainagiritan adierazitako zenbatekoa jaso duela adierazten duen zinpeko aitortpenaren bidez eta bere NAN/AIZaren kopia aurkeztuta.

6. artikuluan aipatutako epeari dagokio b, c eta g puntuetan ezarritako dokumentazioa.

Arabako Foru Aldundiak, aurkeztu diren eskaerak hobeto ebatzi ahal izateko, beste agiri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango du, edo interesdunari eskatu ahal izango dio adieraz dezala noiz eta zein administrazio organotan aurkeztu zituen agiriak.

10. artikulua.- Izapidetzea

Arabako Foru Aldundiaren Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzako Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

Eskabideak aurkezteko ordenaren arabera ebatziko dira, harik eta aurrekontu-zuzkidura amaitzen den arte.



11. artikulua.- Deialdia ebaztea

Organo eskudunak eman beharreko ebazpena emango du, organo izapidetzaileak proposatuta, eskabide bakoitza aurkeztu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek uler dezakete eskaera ezetsi egin dela.

12. artikulua.- Dirulaguntza ordaintzea.


Dirulaguntza ordainduko da ordainketa bakar batean.

13. artikulua.- Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna

Beste administrazio batzuek zein bestelako erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza batzuk jasotzea onartu ahal izango du deialdiak, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez bada diruz lagundutako jardueraren kostua baino gehiago edo eskatutako finantzazioa jaistea eragiten badu, hala badagokio, diruz lagundutako jarduera aurrera ateratzeko.



ANEXO III. FORMULARIO DE SOLICITUD.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>III. ERANSKINA</p> <p><u>Baliable ekonomiko eskaseko pentsiondunei energia-gastuari aurre egiteko laguntzaren eskabidea</u></p> <p><u>ANEXO III</u></p> <p><u>Formulario de solicitud de Ayudas destinadas a financiar el gasto energético de las personas pensionistas con escasos recursos economicos</u></p>
--	--

Departamento de Diputado General

Diputatu Nagusiaren Sala

Idazkaritza Teknikoko eta Herritarak Atentizkeko Zerbitzua

Servicio de Secretaría Técnica y Atención Ciudadana

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo				Identifikazio zk. ■ N° identificativo			Sexua ■ Sexo		
<input type="checkbox"/> IKZ CIF	<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro				<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre	
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social				Lehen abizena ■ Primer apellido			Bigarren abizena ■ Segundo apellido		
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)				Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano	
Herrialdea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio		Herría ■ Localidad		P. K. ■ C. P.			
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax		Posta elektronikoa ■ Correo electrónico					

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾
(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)				Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano	
Herrialdea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio		Herría ■ Localidad		P. K. ■ C. P.			

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL
(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo			Identifikazio zk. ■ N° identificativo			Sexua ■ Sexo		
<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro				<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre	
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social			Lehen abizena ■ Primer apellido			Bigarren abizena ■ Segundo apellido		
Protokolo zk. ■ N° protocolo			Data ■ Fecha			Notarioa ■ Notario		



Telefona ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

BANKU DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

Bankua ■ Banco		
■ IBAN		■ SWIFT

AGIRIAK (Erantsitako dokumentazioa adierazi) DOCUMENTACIÓN (Señalar la documentación que se adjunta)

OHARRAK: Agiriak lehendik aurkeztuta badaude, adierazi non eta noiz aurkeztu ziren.
OBSERVACIONES: Si la documentación está presentada, indicar dónde y cuándo.

			OHARRAK ■ OBSERVACIONES
Eskaera sinatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia	Fotocopia del DNI de quien firma la solicitud	<input type="checkbox"/>	
Eskubidea hirugarren batek aurkeztuz gero, interesatuaren ordezkariaren egiaztatzea	Acreditación de la representación de la persona interesada en caso de presentación de la solicitud por tercero (fotocopia).	<input type="checkbox"/>	
Deialdiaren 4.2 artikuluan ezarritako eroldaren epea egiaztatzeko errola-txartela.	Volante de padrón que acredite el tiempo de empadronamiento previsto en el artículo 4.2. de la convocatoria.	<input type="checkbox"/>	
Laguntza deialdiari dagokion ekitaldian energia gastuak ordaintzeko gizarte larrialdietarako laguntzak jaso dituzten eskatzaileek horri buruzko agiriak aurkeztu beharko dituzte (fotocopia).	Las personas solicitantes que hayan percibido AES destinadas al gasto energético durante el ejercicio correspondiente a la convocatoria de ayudas deberán aportar la documentación referente a la misma (fotocopia).	<input type="checkbox"/>	
Pentsio osagarri gisa diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzearen agiria (fotocopia).	Acreditación de percibir la renta de garantía de ingresos como complemento de pensiones (fotocopia).	<input type="checkbox"/>	
Kontributiboa edo ez-kontributiboa den pentsioa jasotzen den agiria, erretiro, ezintasun edo alarguntzarena (fotocopia)	Acreditación de percibir una pensión, contributiva o no contributiva, de jubilación, incapacidad o viudedad (fotocopia)		
Eskatzailea ageri den banku-agiriaren fotokopia.	Documento bancario donde figura la persona solicitante.	<input type="checkbox"/>	
Elektrizitate, gas edo beste erregairen baten egindako gastuen fakturak eta ordainketa-egiaztagiria.	Facturas y justificantes de gasto en suministro de electricidad, gas y/o otros combustibles.	<input type="checkbox"/>	
Baldin laguntzaren eskatzailea eta bankuko ordainagiri edo egiaztagirien titularra ez badira pertsona bera, agiri bidez frogatu beharko da bien arteko harremana, bai eta ordainagiriak ordaindu direla ere, titularrari egindako banku transferentziaren egiaztagirien bidez edo titularrak ordainagrietan adierazitako zenbatekoa jaso duela adierazten duen zinpeko aitopenen bidez eta bere NAN/AIZaren fotokopia aurkeztuta	En el caso de que el solicitante de la ayuda no coincida con el titular de los recibos o justificantes bancarios, deberá acreditarse documentalmente la relación existente entre ambos y el pago de los recibos mediante justificante de la transferencia bancaria al titular del mismo o mediante declaración jurada de este de haber recibido el importe señalado en los mismos y fotocopia de su DNI/NIE.	<input type="checkbox"/>	

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/Ordezkararen sinadura eta zigilua ■ Firma de la persona solicitante/representante y sello

**AITORTZEN DUT:**

Lehenengoa.- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzetarako lege orokorrak, 13 artikuluan ezarritako diru-laguntzak jasotzeko debeku kasuetatik kanpo nagoela.

Bigarrena.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako Zerga betebeharrak eguneratuak ditudala.

Tercero.- Ez dudala emandako diru-laguntzak itzultzeko obligaziorik ordaindu gabe.

BAIMENTZEN DIOT instrukzio-organoari beharrezkoak diren aztertze lanak egiteko administrazio publikoen eskuetan dauden eta deialdi honetan eskatzen diren datuen egiazkotasuna ziurtatzeko.

Oharra

Oharra: Datu pertsonalak babesteko araudia betez, jakitera ematen dizugu zure datuak fitxategi honetan sartuko direla: "Diputatu Nagusiaren Saileko dirulaguntzak". Fitxategi horren arduraduna Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzua da, eta fitxategiak, bestalde, baditu segurtasun neurri egokiak. Galdegin zaizkizun datuak nahitaezkoak dira informazio publikora sartzeko eskubidea kudeatzeko, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, gardentasun, herritarren parte hartze eta Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoaren gobernamentuari buruzkoak agintzen duen moduan. Zuk eskubidea duzu datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko edo aurka egiteko. Horretarako, baina, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Nagusiaren bulegoetara jo behar duzu (Probintzia plaza, 01001, Gasteiz; telefonoa: 945 181818; Faxe: 945 181754; e-maila: afa-dfa@araba.eus) eta NANA erakutsi beharko duzu.

DECLARO:

Primero.- No hallarme incurso en ninguna de las prohibiciones para ser persona beneficiaria de subvenciones establecidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Segundo.- Encontrarme al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias impuestas por las disposiciones vigentes.

Tercero.- No tener pendiente ninguna obligación de pago en concepto de reintegro de subvenciones.

AUTORIZO al órgano instructor del procedimiento para realizar las comprobaciones oportunas que acrediten la veracidad de los datos requeridos en esta convocatoria que estén en poder de las Administraciones Públicas.

Nota

Nota: En cumplimiento de la normativa en materia de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que sus datos van a ser incluidos en el fichero "Subvenciones del Departamento de Diputado General", cuyo responsable es el Servicio de Secretaría Técnica y Atención Ciudadana y que cuenta con las medidas de seguridad adecuadas. Los datos recabados son necesarios para la gestión de las subvenciones tramitadas por el Departamento del Diputado General. Usted podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a las oficinas de la Diputación Foral de Álava - Registro General Plaza de la Provincia, 01001 Vitoria-Gasteiz, teléfono: 945 181818, fax: 945 181754 o email: afa-dfa@araba.eus, donde deberá presentar copia de su DNI.